



DANI BLANCO

Mikel Zurbano



EHUKO
IRAKASLEA,
EKONOMIALARIA

107 mila milioi eta gero

DUELA BOST URTE Espainiako Bankuak Caja Castilla-La Mancha esku hartu zuen. Neurri hori izan zen Estatuko finantza-erakundearen erreskatearen hasiera eta gezur borobil baten amaiera: Rodríguez Zapaterok esanda Espainiak munduko finantza sektorerik sendoena omen zuen. Espainiako finantza sistemaren krisi handiena etorri zen horren ondoren, zeinak, Espainiako kontu-auzitegiaren estimazioaren arabera, 107 mila milioi euroko kostu publikoa ekarri duen.

Bost urteotan hamaika erakundetan esku hartu du Espainiako Gobernuak –horietako gehienak aurrezki kutzak– eta beste bik diru laguntza publikoak jaso dituzte. Gainera erakundearen arteko inoizko bategite eta integrazio prozesu erraldoina bideratu da, kaudimen eta horniketarako legeak behin eta berriz aldatu dira eta Europari 41 mila milioi euroko erreskatea eskatu behar izan zion Gobernuak. Estatuak orain arte 2.300 milioi euro baino ez ditu berreskuratu. Jakina denez, hondoratze honen arrazoia 2000ko

CCMren erorketak bistako bi ondorio ekarri zituen, Pedro Solbes ekonomia ministroaren dimisioa batetik, Zapaterok krisia ukatzen jarraitzen baitzuen. Bestetik, egoeraren larritasunak FROB erakundearen sorrera ekarri zuen, zailtasunak zituzten erakundeak erreskatatzen laguntzeko funtsarena alegia. 2009an ere, finantza erakundearen baliabide propioak handitzeko preferenteak eta menpeko aktiboen sorrera bultzatu zen, erreskatearen ondoren galerak izan dituzten horiek, hain zuzen. FROBek bideratu du erreskatearen kopururik handiena. Finantza erakunde bakoitzaren galerak estaltzeko eta bere balantzeari sendotzeko 61 mila milioi baino gehiago txertatu ditu. Gainerakoa SAREB bankuaren lerroak edo bestelako laguntza zein finantzazio publikoa erabiltita gauzatu da.

Ehun eta zazpi milioi euro eta bost urte geroago ez da zigor penalik ezta politikorik izan finantzen kalapitaren erantzukizunagatik. EBko kontu publikoen prozeduretan kontuen ematea hain ohikoa izanik horren aztarnarik ez da hemen, arazoa oso larria den arren. Gainera, finantza erakundeetako zuzendari eta administrazio kontseiluko kideen soldatak eta sariak Europako handienak dira. Ondorioak bistakoak ditugu. Batetik, Espainiako Estatuko errentaren desberdintasunen igoera indartu du prozesu honek, EBkoen artean igoerarik handiena bertan nozitu baita sasoi honetan. Bestetik, aspalditik Estatuko gidaritza ekonomikoa zuen finantza oligopolioa are gehiago indartzen ari da, kapitalen kontzentrazioa bururaino eramanda baliabide publikoen bizkar. Gainera, erreskateak zuzenean BPGaren %10 baino gehiago xurgatu du edo urte bateko aurrekontu publikoaren herena. Zeharkako zamak gehituta, egoerak erakusten du Estatuko egungo zorraren igoeran –krisia lehertu aurretik BPGaren %36,5 eta egun %100– erreskateak izugarritzko eragina izan duela. Zor publikoaren zilegitasun eza aipatzen denean haxe litzateke eragile nagusia. ■



Ehun eta zazpi milioi euro eta bost urte geroago ez da zigor penalik ezta politikorik izan finantzen kalapitaren erantzukizunagatik. EBko kontu publikoen prozeduretan kontuen ematea hain ohikoa izanik horren aztarnarik ez da hemen, arazoa oso larria den arren

hamarkada hasierako higiezinaren lasterketa finantzatu ahal izateko kredituaren hazkunde aparta izan zen. Kreditu errazak ekarritako arriskuaren aurrean kontrol mekanismorik eza eta kaudimenaren inguruko axolagabetasuna nagusitu ziren. Urte horietan finantza erakundearen irabaziak urteko %20 ingurukoak izatera heldu ziren. Higiezinaren prezioen balaztatzearekin sistema lehertu egin zen. Espainiako Bankua ezinbesteko kolaboratzailea izan zen leherketan, izan ere egoeraren larritasunaren aurrean ezikusia egin zuen.